

Samieletako txupinazoa eta umeen eguna gaur



Sagardoa dastatzeko aukera izango da. DV

S.U.
AIZARNAZABAL.

Jueves, 26 de septiembre 2024, 20:19

Comenta



Umeen eguna ospatuko da gaur, eta egun guztian zehar puzgarriak eta jolasak izango dira, 10:30-13:00 eta 15:30-17:00etara bitartean.

Jarraian, txokolatada egongo da. Arratsaldeko 19:30ean txupinazoa izango da bertso eskolako umeeekin; herri afaria 21:00etan Ollokiegik girotuta, gauerdian 'Bollywood' konpartsa eta eguna amaitzeko, Laket taldearekin berbena.

Bihar, 11:30ean, XIV. Joxe Larrarte memoriala jokatuko da, eskuz binaka lau terdian, emakume eta gizonezkoen mailan; 16:30an, gazta tarta lehiaketa, Gaztetxokoko kideen eskutik. 17:00etan, XVIII mus eta eskoba txapelketa, eta ondoren 'Legea gu gara' kale antzerkia eskainiko da; 19:30ean, Matraka elektrotzaranga kaleak alaitzen egongo da, eta gaueko 22:30etik aurrera, Sarean, Gozategi eta DJ-Davila. Jaiak igandean amaituko dira, San Miel egunarekin. Jaietako azken egunean sagardo lehiaketa, boloak, herri kirolak, afaria eta musika izango dira, besteak beste.

 Comenta

 Reporta un error

